

Dokumentu mota / Tipo de documento: EBAZPEN PROPOSAMENAK

Nori zuzendua / Dirigido a: EUSKO LEGBILTZARREKO MAHAIA

Proposatzailea / Proponente: ZULUAGA, IRUNE (EA-NV)  
ALONSO, ALBERTO (ES-SV)

Talde parlamentarioa / Grupo parlamentario EA-NV/ES-SV

Data / Fecha 2023.06.23


Espediente zb / Nº de expediente 12\10\08\00\00009

Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa:


Kultura 2028 Plan Estrategikoa // Plan Estratégico Cultura 2028

EA-NV


ES-SV



- |   |  |
|---|--|
| <p>1. Eusko Legebiltzarrak begi onez ikusten du Eusko Jaurlaritzak XII. Legealdiko Plan Estrategikoen artean kokatu izana Kultura 2028 Plan Estrategikoa, honek Jaularitzaren politika publikoetan kulturari ematen dion zentralitateagatik.</p>  | <p>1. El Parlamento Vasco valora positivamente que el Gobierno Vasco haya situado el Plan Estratégico Cultura 2028 entre los Planes Estratégicos de la XII Legislatura, por la centralidad que éste otorga a la cultura en las políticas públicas del Gobierno.</p>  |
| <p>2. Eusko Legebiltzarrak balioan jartzen du Kultura 2028 Plan Estrategikoak agertzen duen luzera begirako asmoa batetik, eta erakunde eta eragileekiko gobernanza partekatuari eta elkarlanari ematen dion garrantzia bestetik, bi osagai horiek bermatukó baitute kultura politikek behar duten egonkortasuna eta jarraitutasuna.</p>  | <p>2. El Parlamento Vasco pone en valor, por un lado, el propósito de largo alcance que plantea el Plan Estratégico Cultura 2028 y, por otro, la importancia que otorga a la gobernanza compartida y al trabajo en común con instituciones y agentes, dos elementos que garantizan la estabilidad y continuidad que requieren las políticas culturales.</p>  |
| <p>3. Eusko Legebiltzarra bat dator Kultura 2028 Plan Estrategikoak aipatzen dituen kulturaren hiru oinarriekin: lehenik sortzaileen eta kulturgileen talentua eta euren lanaren bikaintasuna; bigarrenik, euskal gizarteak kulturekiko duen atxikimendua, izan norbanakoek, izan giza-taldeek, zein empresa edota fundazio pribatuek; eta hirugarrenik, herri erakundeen eta kulturaren sektore publikoaren konpromisoa.</p> | <p>3. El Parlamento Vasco comparte los tres pilares de la cultura a los que se refiere el Plan Estratégico Cultura 2028: en primer lugar, el talento de los creadores y productores culturales y la excelencia de su trabajo; en segundo lugar, la adhesión de la sociedad vasca a las cultura, ya sean individuales, colectivos humanos, empresas o fundaciones privadas; y en tercer lugar, el compromiso de las instituciones públicas y del sector público cultural.</p> |
| <p>4. Legebiltzarrak uste du kultura funtsezko elementua dela edozein komunitate eraikitzeko. Sozialki erlazionatzen eta gure ingurunearekin elkarreragiten ikasteko tresna da. Ideia eta nortasun kolektibo partekatua eraikitzeko oinarria da.</p>  | <p>4. El Parlamento Vasco considera que la cultura es un elemento fundamental en la construcción de cualquier comunidad. Es la herramienta a través de la que aprendemos a relacionarnos socialmente y a interactuar con nuestro entorno. Es la</p>  |



- base de la construcción de un ideario y una identidad colectiva compartida.
5. Eusko Legebiltzarrak beharrezko ikusten du kultura gizartearren zerbitzura jartzea, kultura beste esparru batzuekin lankidetzen (hezkuntza, osasuna, ingurugiroa, gizarte politikak, etab.) herritarren beharrei eta gizarte osoaren ongizateari erantzunak emateko lagungarria izan daitekeen neurrian.
  6. Eusko Legebiltzarrak azpimarratu nahi du kulturaren alderdi ekonomikoaren garrantzia, kolektibo profesional modura eta emplegu eta aberastasuna sortzen duen industria edota sektore modura, beste sektore batzuen garapenean ekarpen handia egiten duelarik (berrikuntza, turismoa, merkataritza, nazioartekotza, etab.).
  7. Eusko Legebiltzarrak beharrezko jotzen du kultura politika publikoen bitartez sorkuntza sustatzea, sortzaile eta kulturgileen profesionalizazioa areagotzea, kultura arloko langile eta profesionalen lan baldintzetan hobekuntzak sustatzea eta kultura industrien eta KSlen sendotasuna bultzatzea.
  8. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala, gizarte eragileekin lankidetzen, kulturazaletasuna areagotzeko neurriak ezartzen, publiko berriak eta bereziki gazteak erakarriz, bai zaletasunezko sorkuntza bultzatzeko, baita kulturarekiko atxikimendua eta kontsumoa
  5. El Parlamento Vasco considera necesario poner la cultura al servicio de la sociedad en la medida en que pueda contribuir a dar respuesta a las necesidades de la ciudadanía y al bienestar del conjunto de la sociedad en colaboración con otros ámbitos (educación, sanidad, medio ambiente, políticas sociales, etc.).
  6. El Parlamento Vasco quiere destacar la importancia de la dimensión económica de la cultura como colectivo profesional y como industria y/o sector generador de empleo y riqueza, con una importante contribución al desarrollo de otros sectores (innovación, turismo, comercio, internacionalización, etc.).
  7. El Parlamento Vasco considera necesario fomentar la creación cultural a través de las políticas públicas, aumentar la profesionalización de los creadores y productores culturales, promover mejoras en las condiciones de trabajo de los trabajadores y profesionales de la cultura y fomentar la consolidación de las industrias culturales y de las ICC (Industrial Culturales y Creativas).
  8. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a continuar, en colaboración con los agentes sociales, con el establecimiento de medidas para aumentar la afición a la cultura, atrayendo a nuevos públicos y especialmente a jóvenes, tanto para favorecer la creación



areagotzeko ere, bereziki irakurzale-tasunaren esparruan.

- de personas aficionadas como para aumentar la adhesión y el consumo cultural, especialmente en el ámbito de la lectura.
9. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio babestu eta indartu ditzala zaletasunezko praktika guztiak, bereziki gure esparru tradizionalean gertatzen direnak gure kultur nortasunaren adierazgarrienetakoak izaki (musika tresnak, dantzak...) haien transmisión eta difusioa bermatze aldera.
10. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, jarrai dezala euskal kultura munduan zabaltzen, sortzaileei nazioarteko plazan aukera berriak bilatzen laguntzen eta kultura Euskadien nazioartekotze elementu garrantzitsuenetako bat bezala jorratzen.
11. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio segi dezala garatzen Artearen Euskal Sistema, museoen arteko lankidetza, programa partekatuak eta dokumentazio eta artxibo sistemen arteko osagarritasuna sustatuz. Halaber, eskatzen du hedatu dezala sistema eredu hau beste sektore batuetara, besteak beste, musika klasikoaren alorrrera.
12. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio burutu ditzala Dokumentu Kudeaketa Integralaren eta Dokumentu
9. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a respaldar y fortalecer todas las prácticas de afición, especialmente aquellas arraigadas en nuestra tradición cultural y que constituyen una parte fundamental de nuestra identidad (instrumentos musicales, las danzas...), con el objetivo de asegurar su transmisión y difusión.
10. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a continuar con la difusión de la cultura vasca en el mundo, a apoyar a los creadores en la búsqueda de nuevas oportunidades en el espacio internacional y a abordar la cultura como uno de los elementos de internacionalización más importantes de Euskadi.
11. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a seguir desarrollando el Sistema Vasco del Arte, promoviendo la colaboración entre museos, programas compartidos y la complementariedad entre los sistemas de documentación y archivo. Además, se solicita la ampliación de este modelo de sistema a otros sectores, como el de la música clásica.
12. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a llevar a cabo los desarrollos reglamentarios correspondientes a la Ley



Ondarearen Legeari eta Euskadiko Kultura Ondarearen Legeari dagozkien erregelamendu bidezko garapenak, eta betearazi ditzala bi legeok duten ahalmen guztiarekin.

13. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala kultura ondarearen babesbermatzen, babes horiek kudeatzen, laguntzak ematen eta ikerketa sustatzen, bereziki erreparatuz industria ondarerari eta ondare materiagabeari.
14. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaularitzari eskatzen dio arreta berezia jarri diezaiela larrialdi klimatikoaren ondorioz arriskuan egon daitezkeen kultura ondare elementuei -materiadun zein materiagabeei-, hauen babes eta transmisio egokia bermatuko duten neurriak eta estrategiak bilatz. Horretarako, halaber, Eusko Legebiltzarrak eskatzen du indartu ditzala dokumentazio, ikerketa, formakuntza eta zabalkunde programak eta tresnak larrialdi klimatikoak kultura ondarean eragin ditzakeen kalteak prebenitzea edota aurre egitea helburu dutenak.
15. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio indartu dezala kultura sektorearen jauzi digitala, ikus-entzunezkoen esparruan besteak beste, sorkuntza eta ekoizpen modu eta trebetasun berriak esploratzen laguntzeko batetik, éuskal gizartearen kontsumo ohitura berriei erantzun ahal izateko bestetik, eta hirugarrenik euskal kulturak esparru digitalean lekua eta ikusgaitasuna

de Gestión Documental Integral y del Patrimonio Documental y a la Ley de Patrimonio Cultural de Euskadi, y a hacerlos cumplir con toda la potestad de ambas leyes.

13. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a seguir garantizando la protección del patrimonio cultural, su gestión, la concesión de ayudas y el fomento de la investigación, con especial atención al patrimonio industrial e inmaterial.
14. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a prestar especial atención a los elementos del patrimonio cultural, tanto materiales como inmateriales, que puedan verse amenazados por la emergencia climática, buscando medidas y estrategias que garanticen su adecuada protección y transmisión. Para ello, el Parlamento Vasco insta a que se refuercen los programas e instrumentos de documentación, investigación, formación y difusión destinados a prevenir y/o combatir los daños que la emergencia climática pueda ocasionar al patrimonio cultural.
15. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a fortalecer aún más el salto digital del sector cultural en áreas como el audiovisual, a fomentar la exploración de nuevas formas y habilidades de creación y producción, a adaptarse a los nuevos hábitos de consumo de la sociedad vasca y, en tercer lugar, a garantizar que la cultura vasca continúe ganando espacio y



irabazten jarrai dezan, bai euskal gizartearen, baita nazioartean ere.

16. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala Kulturaren Euskal Behatokiaren lana indartzen eta balioan jartzen, kulturaren egoeraren azterketa eta jarraipena egiteko eta kulturaren adierazleak lantzeko ezinbesteko tresna den heinean.

visibilidad en el ámbito digital, tanto a nivel local como internacional.

16. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a continuar fortaleciendo y destacando la importancia del Observatorio Vasco de la Cultura como una herramienta fundamental para el análisis y seguimiento de la situación de la cultura y la elaboración de sus indicadores.